



18 BIDEGAIN

Sagardo dolareen inbentarioa

ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Bidegain.

Auzoa, udalerria: Galtzaur., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Bi bizitzetako etxean, ezkerrekoaren behe solairuan, garajea, sakoneko gelan.

Jabea: Isidro Zapiain.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XXI. mendekoa.

Iraunaldia: Urtero egiten du sagardoa.

Zenbait datu:

Egungo erabilera: Sagardogintza.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Eskuzko prentsa txiki eramangarri bat zen hasieran, erdian burdinazko ardatza, burua eta inguruan sarea zuena. Oinarriko zurezko plataforma poliesterez estali, pitzatu eta zabaldu egiten baitzen, eta ardatza eta buruaren ordez, burdinazko zubia ezarri zion, katu hidrauliko bidez eragiteko.

Dolarearen osagarriak:

- Sare barneko egur eta oholak.
- Asturiastik (Espainia) ekarritako matxaka.
- 550 litroko altzairu herdoilgaitzezko upela.
- 50 litroko garagardo bost barrika eta 60 litroko beste bat.
- Sagardo botilak eta botilak lehertzeko euskarria.

Argazkiak: 18.01, 18.02.

GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Astigarraga, sagardoa egin, upela.

OHARRAK

- Bidegainen sagardoa egiteaz gain, Agiñastegiko tolaean ere egiten zuen, lehen.
- Donostiako ingurabideko lanak zirela eta, Bidegain etxea lekuz aldatu zuten duela 3 urte, eta noski, baita tolaea eta osagarri guztiak ere.

GALDETEGIA

Informatzailea: Isidro Zapiain.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko apirilaren 28a